



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2016/12/21

Bizkaiko Batzar Nagusiek aurrekontuetako azkenengo aldaketak adostu ditue 27ko osoko bilkuraren aurretik

Batzarretako taldeek Bizkaiko Aurrekontuen proiektuaren aurrean aurkeztu dituen zuzenketa-eske partzialen eztabaidaren azkenengo jardunaldian, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak beste 10 aldaketa onetsi ditu Foru Arau proiektuan, horreetako erdiak aldaketa teknikoak. Euskera eta Kulturako foru sailak beste 262.000 euro jasoko ditu datorren urtean hainbat proiektu gauzatzeko. Eta Gizarte Ekintza Saileko aurrekontuak, bere aldetik, bere gastuaren egitura aldatuta ikusiko dau, Etxebarriko eguneko zentroa aurrera eroateko 185.000 euroko inbertsinoa aurreikusten dalako.

Goizeko saioan Lorea Bilbaok zuzentzen dauen saileko zuzenketa-eskeak eztaibadau dira, eta Batzarretako taldeek lau aldaketa onetsi ditue, eztabaidau diran 86 zuzenketa-eske partzialen artean. Bermeoko Udaletxea barriztetara zuzenduta egongo dan 150.000 euroko partidea azpimarratu behar da. EH Bilduk, hasieran, 500.000 euroko ekarpena eskatzen eban, baina, azkenean, aho batez onartu dan EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen zuzenketa-eske transakzionala onetsi dau. Meritxell Elegezabal EH Bilduko batzarkideak azaldu dauenez, neurri horri esker proiektuaren “bigarren fasea hasi” ahal izango da, 2013. urtean kiskalduta geratu ziran eraikinaren estrukturak indartzeko eta barrualdea hustutzeko beharrak amaitu ostean.

Euskera eta Kultura Saileko kontuetan izandako aldaketen artean azpimarragarria da, baita be, meatzaritzako ondarea berreskuratzeko arloan “sortu daitekezan proposamenei erantzutera” zuzendutako “funtsak” izango dauen 100.000 euroko igoerea, Juan Otermin sozialistak adierazo dauenez. Hasierako aurrekontua 30.000 eurokoa zan. Jeltzaleek eta sozialistek zuzenketa-eske transakzionala adostu dabe EH Bildugaz eta Talde Mistoagaz, talde horreek, zuzenketa-eske bitan, meatzarien etxebizitzak barriztetako beharretan Aldundiaren esku-hartzea eta bertako lurretan dagon meatzarien etxe bat berreskuratzeko Euskadiko Meatzaritzaren Museolari laguntza berezia emotea eskatu dabelako.

Horrez gain, Euskera eta Kulturako aurrekontuak 2.000 euro jasoko ditu Foru Artxiboko funtsen digitalizetea planifikauko dauen azterlana egiteko. Partidea EAJ-PNV, PSE-EE eta Talde Mistoaren artean adostu da, Arturo Aldecoak, Bizkaiko hemeroteca eta liburutegi digitala osatzeko 1936. urtearen aurreko argitalpenak eskaneetea eta digitalizetea hasteko eskatzen eban zuzenketa-eskea baztertu ostean. Horretarako 150.000 euroko hasierako ekarpena eskatzen eban.

Bukatzeko, hiru talde horreek, eskolako kirolean parte hartzen daben alkarteen jarduerak ordaintzeko partidea 10.000 eurotan handitzea be erabagi dabe. Hasierako aurrekontua 570.000 eurokoa zan. EH Bilduren eretxiz, igoerea “eskasa” da.

ETXEBARRIKO ZENTROA

Eguneko bigarren saioan, Gizarte Ekintzako aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa-eske partzialak eztabaidau dituanen, zuzenketa-eskeen eta programen bozketeak ez dau zuzenketa-



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eske transakzional formako ezustekorik ekarri. Oposizinoak aurkeztu dituan 54 zuzenketa-eske partzialak ez dira onartu. Onartu diran bakarrak, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera ekarri dituen hiruak izan dira. Horreetako bi teknikoak izan dira.

Foru Gobernua eusten daben talde biek 185.000 euroko partidea aurkeztu dabe, onartzeko, “Etxebarriko zentroak funtzionetan emongo dauen lehenengo urtean alde esperimentalala garatu ahal izateko”, Maria Esther Furundarena jeltzaleak azaldu dauenez. Zuzenketa-eskeak Batzarretako talde guztien aldeko eretxia jaso dau, abstenidu egin dan EH Bildurena izan ezik, koalizino abertzaleak adierazo dauenez horretarako ez dalako “partida berezirik osatzen”. “Orokorretik kendu da, leku batetik bestera eroateko”, azpimarratu dau Arantza Urkaregik.

OGASUNA ETA FINANTZAK ETA TESTU ARTIKULAUUA

Batzordera 33 eta 42 zuzenketa-eskegaz, hurrenez hurren, heldu diran Ogasun eta Finantza Saileko aurrekontuari eta Foru Arau Proiektuaren Testu Artikulauaren idazketeari jagokenez, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen azkenengo erabagiak izaera “teknikoa” daben hiru aldaketa baino ez ditu jasoko, Foru Aldundia eusten daben taldeek bultzatutakoak.

Gainerako batzordeetan gertatu dan moduan, oposizinoak lau taldeek –EH Bildu, Podemos Bizkaia, PP eta Mistoak–, datorren martitzenean, abenduaren 27an, Gernikan egingo dan urteko azkenengo osoko bilkurarako erreserbau ditue euren zuzenketa-eskeak. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak emongo dauen aurrekontuen inguruko ebazpena oposizinoaren 550 zuzenketa-eske baino gehiagogaz helduko da Gernikan egingo dan osokora.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
21/12/2016

Las Juntas Generales de Bizkaia acuerdan los últimos cambios presupuestarios antes del pleno del día 27

En la última jornada de debate de las enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros a los Presupuestos de Bizkaia del año 2017, la comisión de Economía y Hacienda ha aprobado un total de 10 cambios en el proyecto de Norma Foral, la mitad de carácter técnico. El departamento foral de Euskera y Cultura obtendrá 262.000 euros más para desarrollar diferentes proyectos el año próximo. El presupuesto de Acción Social verá alterada su estructura de gasto al contemplarse una inversión de 185.000 euros para desplegar servicios en el centro residencial de Etxebarri. Y, por su parte, Hacienda y Finanzas no variará su texto presupuestario.

En la sesión matutina que debatía las enmiendas del área que dirige Lorea Bilbao, los grupos junteros han aprobado cuatro modificaciones, de un total de 86 enmiendas parciales debatidas. Destaca una partida de 150.000 euros que irá destinada a la restauración del consistorio de Bermeo. EH Bildu planteaba inicialmente una aportación de 500.000 euros, pero finalmente ha aceptado una enmienda transaccional de PNV y PSE-EE que rebajaba este importe y que ha sido aprobada por unanimidad. Según ha explicado la juntera de EH Bildu Meritxell Elgezabal, la medida servirá para “iniciar la segunda fase” del proyecto una vez terminadas las labores de reforzamiento de las estructuras y el vaciado interior del edificio calcinado en el año 2013.

Entre los cambios acordados para las Cuentas de Euskera y Cultura destaca también el aumento, en 100.000 euros, del “fondo” destinado a “responder a las propuestas que vayan surgiendo” - según el socialista Juan Otermin- en materia de “recuperación del patrimonio cultural en los museos”. Se partía de un presupuesto inicial de 30.000 euros. Jeltzales y socialistas han recogido el guante de EH Bildu y Mixto en forma de enmienda transaccional. Los dos grupos de la oposición habían pedido en sendas enmiendas la intervención de la Diputación en la restauración de las viviendas de los mineros, así como un apoyo especial al Museo de la Minería del País Vasco para la recuperación de una casa minera ubicada en sus terrenos.

Asimismo, el presupuesto de Euskera y Cultura incluirá 2.000 euros para elaborar un estudio que planifique la digitalización de fondos en el Archivo Foral. La partida ha sido acordada entre PNV, PSE-EE y grupo Mixto después de que el apoderado Arturo Aldecoa haya retirado una enmienda suya en la que solicitaba el inicio del escaneado y digitalización de publicaciones anteriores a 1936, para completar la hemeroteca y biblioteca digital de Bizkaia. Pedía para ello una aportación inicial de 150.000 euros.

Por último, estos tres grupos han acordado también ampliar en 10.000 euros una consignación presupuestaria dirigida a sufragar actividades de las entidades participantes en el deporte escolar. Se sumará al presupuesto inicial de 570.000 euros, “escasa” para EH Bildu.

CENTRO DE ETXEBARRI

En la segunda sesión del día, en la que se debatían las enmiendas parciales de los presupuestos de Acción Social, la votación de enmiendas y programas no ha deparado sorpresas en forma de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

enmiendas transaccionales. Las 54 enmiendas parciales presentadas por la oposición han decaído. Sólo se han aprobado las tres que traían Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos de manera conjunta, dos de ellas de carácter técnico.

Los dos grupos que apoyan al Gobierno foral han presentado para su aprobación una partida de 185.000 euros para “poder desarrollar la parte experimental” del centro de Etxebarri durante el primer año de funcionamiento, según ha explicado la jeltzale Ana Esther Furundarena. La enmienda ha sido apoyada por todos los grupos de la Cámara a excepción de EH Bildu que se ha abstenido, ya que para la coalición abertzale, “no se crea una partida específica” para tal fin. “Se quita del genérico para llevarla de un sitio a otro”, ha apostillado la apoderada Arantza Urkaregi.

HACIENDA Y FINANZAS, Y TEXTO ARTICULADO

En lo que se refiere al presupuesto de Hacienda y Finanzas y a la redacción del Texto Articulado del Proyecto de Norma Foral que llegaba a la comisión con 33 y 42 enmiendas, respectivamente, el dictamen final de la Comisión de Economía y Hacienda incorporará únicamente tres cambios de carácter “técnico” auspiciados por los grupos que apoyan a la Diputación.

Como ha ocurrido en el resto de comisiones, los cuatro grupos de la oposición –EH Bildu, Podemos Bizkaia, PP y Mixto- han reservado sus enmiendas para el último pleno del año que se celebrará el próximo martes, 27 de diciembre, en Gernika. El dictamen presupuestario que emita la comisión de Economía y Hacienda llegará al pleno de la villa foral con más de 550 enmiendas de la oposición.